

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEKO 2017-2018KO MEMORIA



DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

ORDUTEGIA
10:00 - 21:00

Helbidea:
Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonoa:
943 48 34 70

E-mail:
info@donostiaemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:
donostiaemakumeenetxea.com

Berdintasuneko zinegotzi Duñike Agirrezabalagak Donostiako Emakumeen Etxearen 2017/2018 ikasturteko memoria aurkeztu du. Hor jasotako datuen arabera, Okendo kalean kokatutako Emakumeen Etxeak **34.601 bisita** izan zituen aldi horretan; beraz, **batez beste 140** bisita izan zituen egunean, iaz baino % 45 gehiago. Bazkideak ere ugartu dira, 843tik 1.023ra.

Joan den ikasturtean, Udaleko informatika zerbitzuek Emakumeen Etxerako berriaz diseinatutako datu base bat jarri zuten, eta hobekuntza horri esker lortu dira datu estatistiko horiek. Datuok 2018ko ekainean jasotakoak dira, eta ahalduntze taldeetan eta lantegi programatuetan parte hartu duten 486 emakumetan daude oinarrituta. Horren arabera, erabiltzaileen % 73,66 Donostian bizi da, eta % 25 inguru, Gipuzkoan. Adinari dagokionez, emakume gehienek 56 eta 65 urte bitartean dituzte (% 25). Atzetik datoz, hurrenez hurren, 46 eta 55 urte bitartekoak, 25 eta 35 urte bitartekoak, eta 36 eta 45 urte bitartekoak; azken hiru horiek oso paretsu dabilta,% 18 inguruan. Ordezkaritza gutxien duten adin tarteak 25 urtetik beherakoena eta 65 urtetik gorakoena dira.

Erabiltzaileei buruzko beste datu batzuk: % 60k unibertsitate ikasketak ditu; atzetik datoz, Lanbide Heziketako ikasketak dituzten emakumeak (% 18) eta bigarren mailako ikasketak dituztenak (% 10). Parte hartzaileen lan egoera banatuxeago dago: inoren kontura eta lanaldi osoz lan egiten dutenak dira talderik ugariena (% 32); gertutik jarraitzen diete erretiratuek eta beste batzuek (% 20); lanik gabeak % 19 dira; eta ehuneko txikiagoa hartzen dute inoren kontura eta lanaldi partzialean lan egiten dutenek (% 11), ikasleek (9%) eta norberaren konturako langileek (% 7). Datu interesgarri gehiago: erabiltzaile gehienek jarduera batean (% 63) edo bitan (% 20) parte hartzen dute, eta 486 erabiltzaileen % 40 elkarteko bazkideak dira.

Ahalduntze talde ugarien artean, nabarmentzekoa da lehengoz gainera beste hiru eskaini direla: Desgaitasuna duten Emakumeena, emakumeek jasaten duten diskriminazio bikoitza aztertzeko eta ahulezia eta desberdintasun egoerei aurre egiteko sortua; Musika eta Ahalduntzea, zailtasun emozional, psikologiko edo fisikoak dituzten emakumeekin egiten den taldeko esku hartze terapeutikoa; Hitzeko Ahalduntze Lantegia (*Empalabramiento*), espainiera hitz egiten ez duten herrialdeetako emakume migratuei zuzendutako hezkuntza metodoa”.

Azkenik, zinegotziak gogorarazi du Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Elkarlan 2017 saria eman diola elkarteari. Sari hori balio publiko partekatua sortzeko eta gizartearen erronkei eta beharrei erantzuteko gai diren proiektuei ematen zaie. Udalak ahalegina egin du Etxean zerbitzuak ematen dituzten profesionalen baldintza ekonomikoak orekatzeko. Horren ondorioz, aldaketak izan dira eskaintzen den ordu kopuruan.

Donostiako Emakumeen Etxea emakumeen topagune, eztabaida eta hausnarketarako gunea da. Horren helburua da politika, programa eta proiektuetan eragitea, bizitzaren arlo guztietan aurrera egiteko emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorrerantz. Hiriko mugimendu feminista eta emakume talde askoren eskaera historikoa da hori, eta Berdintasun Bulegoak bere egin zuen.